

TXOSTENA

Hala xedatzen baitu 133.1 artikuluan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatuko da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onesteko aukera eta beharra.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Dena dela, artikuluko horren 6. apartatuak ezartzen du ezen aipatutako alde zuzeneko kontsulta publikoa ez egitea ere badagoela, baldin eta arau proposamenak eragin esanguratsurik ez badu jardura ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei betebeharrak garrantzitsurik ez badakarkie edo arautzen dituen alderdi partzialak badira.

Foru dekretu proiektu honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamendua aldatzea, enbargatutako ondasunak besterentzeko araubide juridikoa aldatzea delarik helburu nagusia; zehazki, enkante bidezko prozedura azkartzeko eta sinplifikatzeko, eta bitarteko elektronikoak sustatzea, horrela prozeduraren hedapen zabalagoa lortzeko. Izan ere, horren ondorioz arrakasta handiagoa izanen dute horrelako besterentzeek. Horrela, ondasunak besterentzeko prozedura Estatuan dagoeneko erabiltzen diren termino eta zehaztapenen arabera egien da, Estatuko Aldizkari Ofizialaren Enkanteen Atarian aurreikusitako prozedura elektronikoaren bidez (<https://subastas.boe.es>). Egun bizi dugun pandemia egoera dela eta, are beharrezkoagoa da pertsonak leku itxi batean egotea eskatzen ez duten bitartekoak erabiltzea.

Alde horretatik, kontuan hartu behar da ezen foru dekretuaren proiektu hau bat datorrela hitzez hitz martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoak, 133. artikuluko 6. apartatuan ezarritakoarekin, zentzu honetan: baldintzak betetzen dira proiektua egin aurreko kontsulta publikorik ez egiteko; izan ere, arau-proposamenak ez du eragin esanguratsurik jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei ez dakarkie betebeharrak garrantzitsurik eta arautzen dituen aspektuak partzialak dira. Aipatu foru dekretuaren proiektuaren bidez aldatzen da uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuak onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamendua.

Hori hala izanik ere, foru dekretuaren proiektua jendaurrean jarriko da eta Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko, baita Nafarroako Zerga Ogasunaren atarian ere.

Iruñean, 2021eko otsailaren 12an

Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendaria

Cristina Sarasa Villaverde